

BESTELAKO XEDAPENAK

ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILA

5717

AGINDUA, 2024ko abenduaren 3koa, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuarena, Ikerkuntzako Euskadi Sarirako 2024ko deialdia egiteko dena, jarduera zientifikoa sustatzeko.

Abenduaren 5eko 261/2017 Dekretuak arautzen du Ikerkuntzako Euskadi Saria, jarduera zientifikoa sustatzeko; dekretu hura, gero, 4/2022 Dekretuak aldatu zuen (4/2022 Dekretua, urtarrilaren 11koa, zeinaren bidez bitarteko elektronikoak erabiltzeko betebeharra arautzen baita ikerketa arloko laguntzetarako eta sarietarako eskabideetan eta gainerako izapideetan).

Dekretu horren 1.3 artikulua dioenez, Ikerkuntzako Euskadi Sarirako deialdia urtero egingo da, Hezkuntzako sailburuaren agindu baten bidez. Aginduan, xedea azaldu behar da, eta hautagaiak aurkezteko epea, eta epe hori ezin da izan hilabete baino gutxiagokoa.

Kontuan hartu da 18/2024 Dekretua, ekainaren 23koa, lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen (2024ko ekainaren 24ko EHAA, 123. zk.).

Oinarri gisa Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Agindua hartu da, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espedienteak aurretiaz izapidetzea arautzeari buruzkoa, eta hark xedatutakoa.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea Ikerkuntzako Euskadi Sariaren 2024ko deialdia egitea da, zientziaren eta teknologiaren modalitatean; abenduaren 5eko 261/2017 Dekretuan arautua da sari hori.

2. artikulua.– Eskabideak aurkezteko era eta epea.

Hautagaitza esteka honen bidez aurkeztu behar da:

<https://www.euskadi.eus/servicios/0176110>

Hautagaiak aurkezteko epea hilabete naturalekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

3. artikulua.– Datuak babestea.

Eskatzaileen datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko: Laguntzak eta dirulaguntzak (ikerketa sustatzekoak). Informazio hau emango da:

Arduraduna: Ikerketa Zuzendaritza; Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila.

Helburua: ikerketa finantzatzea eta bultzatzea.

Legitimazioa:

– Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren alde edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak baliatuz eginkizun bat betetzeko.

– 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

– 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa.

– 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.

Hartzaileak:

– Euskal Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

– Ogasun eta Finantza Saila.

– Patente eta Marken Espainiako Bulegoa.

Eskubideak: eskatzaileak eskubidea du datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta eze-rezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: gure webgunean kontsultatu daiteke datuak babesteari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/054300-cap2-eu.shtml>

Araudia:

– Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673>).

XEDAPEN GEHIGARRIA

Deialdi honetako sariak ebatziko badira, kreditu egokia eta nahikoa egon beharko du 2025. urterako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako gastu-espedienteak aurretiaz izapidetzeari buruzko Ogasun eta Herri Administrazioako sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluan zehazten den moduan.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuari, hilabeteko epearen barruan, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honetan xedatzen ez diren alderdietarako, abenduaren 5eko 261/2017 Dekretuak xedatutakoa beteko da (261/2017 Dekretua, abenduaren 5ekoa, Jarduera zientifikoa sustatzeko asmoz lkerkuntzako Euskadi Saria arautzen duena).

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 3a.

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburua,
JUAN IGNACIO PÉREZ IGLESIAS.

ERANSKINA

ESKABIDE-INPRIMAKIA	ERREFERENTZIA	
	BARNE-KODEA	
IKERKUNTZAKO EUSKADI SARIA		

A.- ESKAERAREN DATUAK

Modalitatea	☐ Hautagaiak berak proposatua	☐ Beste batek proposatua
-------------	--	---

HAUTAGAIAREN DATUAK							
Izen-abizenak							
NAN/AIZ		Sexua	☐ Gizonezkoa		☐ Emakumezkoa		
Helbidea							
Udalerria		PK		Herrialdea			
Helbide elektronikoa			1. telefono-zenbakia		2. telefono-zenbakia		

HAUTAGAIA PROPOSATZEN DUEN PERTSONAREN DATUAK							
Izen-abizenak							
NAN/AIZ		Sexua	☐ Gizonezkoa		☐ Emakumezkoa		
Helbidea							
Udalerria		PK		Herrialdea			
Helbide elektronikoa			1. telefono-zenbakia		2. telefono-zenbakia		
Kargua							

Entitate bat ordezkatzeko du	☐
------------------------------	--------------------------

ORDEZKATZEN DUEN ENTITATEAREN DATUAK						
Sozietatearen izena						
IFK						
Helbidea		Udalerria		PK		
Telefonoa						
Helbide elektronikoa						

, sinadura:

Eskatzaileen datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko: Laguntzak eta dirulaguntzak (ikerketa sustatzekoak). Informazio hau emango da:

Arduraduna: Ikerketa Zuzendaritza; Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila.

Helburua: ikerketa finantzatzea eta bultzatzea.

Legitimazioa:

– Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren alde edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak baliatuz eginkizun bat betetzeko.

– 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

– 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa.

– 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.

Hartzaileak:

– Euskal Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

– Ogasun eta Finantza Saila.

– Patente eta Marken Espainiako Bulegoa.

Eskubideak: eskatzaileak eskubidea du datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: gure webgunean kontsultatu daiteke datuak babesteari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/054300-cap2-eu.shtml>

Araudia:

– Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa (<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=boe-a-2018-16673>).

ESKABIDEARI ERANTSITAKO DOKUMENTUAK	
Dokumentua	Erantsia